

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA

KIROLA



2012



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENERO-ERAGINA EBALUATZEKO AZERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	5
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN.....	5
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	9
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA .	13
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	15
2.5. BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDU ESPEZIFIKOAK ...	19
3. LEGEDIA	21
4. DATU-ITURRIAK.....	22
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK	24

1. TESTUINGURUA

Kirol-arloan, emakumearen presentzia eta parte hartzea berandu eta zailtasun handiak gaindituta etorri da. Egun ere, beren presentzia gizonena baino txikiagoa da, bai jolasezko nahiz lehiatzeko kirolean, bai kirol profesionalean. Halaber da txikiagoa emakumeen presentzia kirol sistemaren egituretan. Beste esparru batzuetan bezala, kirolean ere hainbat traba esplizitu eta inplizitu gainditu behar izan dituzte emakumeek; alegia, desberdintasuna sorrarazi duten gizarte eta kultura estereotipoen ondoriozko aurreiritziak.

Izan ere, kirol arloko desberdintasuna sortzetikoa da; gizonek sortu zuten kirola gizonek beraiek egin zezaten, balio jakin batzuk transmititzea eta beren ahalmen fisikoak garatzea xede zutela. Balio horiek, hain zuzen ere, lehiakortasuna, indar fisikoa edota agresibitatea dira, guztiak ere indarra, potentzia edo iraungarritasuna bezalako mugimen gaitasunak dituztenak oinarrian.

Alabaina, kirolaren bidez, lankidetzeta eta taldeko lana bezalako balioak ere transmititzen dira, eta baliagarria da auto-estimua eta nork bere burua hobetzeko grina sendotzeko. Ondorioz, eta ongizate fisikoa eta psikologikoa eragiten duenez, argi dago erabat positiboa dela gero eta emakume gehiagok kirola egitea.

Hala ere, eta jarraian ikusiko dugunaren arabera, gero eta emakume gehiagok kirola egiteak ez du esan nahi haiek gizonen antzeko irisgarritasun-baldintzak, kirola egiteko eta egiten jarraitzeko motibazioa, gogobetetasuna, pizgarriak eta trabak dituztenik, ez eta batzuek zein besteek erabakiak hartzeko aukera berdinak dituztenik ere.

Desberdintasun horiek guztiak gainditzeko, funtsezkoa da berdintasunari buruzko lege-aginduak behar bezala betetzea. Lege-agindu horiek, besteak beste, honakoak dituzte hizpide: botere publikoen betekizuna da emakumeen ahalduntzea sustatzea, hala nola balio-aldaketa gertaraztea, emakumeek egindako kirola sustatu eta aintzatestea, zenbait kirol-jardueratara gizonak eta emakumeak heltzea oztopatzen edo eragozten duten trabak gainditzea, erabakiak hartzen diren esparruetan emakumeen presentzia areagotzea, kirola sustatzeko programa publiko guztietan genero-ikuspegia txertatzea, sexuagatiko bereizkeria dakarten kirol-jarduerak debekatzea, eta, oro har, kirol arloari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna eragozten duten traba guztiak deuseztatzea.

2. GENERO-ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Kirola, lehen esan bezala, esparru maskulinoa izan da, emakumeak geldiro baina etengabe heldu direna. Hori bai, oro har, emakumeen presentzia oraindik ere txikiagoa da gizonena baino, batez ere, kirol federatu eta profesionaletan. Jarraian ikusiko dugun bezala, neska eta emakume gehien diharduten kirol-jarduerak osasunari eta ariketa fisikoari lotuta daude, eta ez hainbeste kirol lehiari.

Gorputz-hezkuntza hezkuntza-curriculumean sartu izanak derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dauden neska-mutilak kirola egiten hasitezela unibertsalizatu zuen. Ikastetxeetan, sexu batekoak zein bestekoak kirolera baldintza berdinetan heltzea ahalbidetu zen arren, era berean, adin goiztiarretik kirola gizarte-rol maskulinoari lotzea indartu zen, gorputz-hezkuntzako irakasle gehienak gizonezkoak zirelako. Gainera, oraindik ere gorputz-hezkuntzaren koedukaziorako oinarri sendoak ezarri eta garatzeko beharra dago, neska-mutilak baldintza berdinetan jardun daitezzen kirolean eta kirolarekiko interesa eta motibazioa gara dakien. Horretarako, irakasleak berdintasun gaietan trebatu behar dira, baita trebakuntza akademikoan zein etengabean ere, kirol teknikari buruzko ezagutza teoriko eta praktikoez gain, koedukazio arloko ezagutzak bereganatu eta beren eguneroko lanetan aplikatu ditzaten.

Edonola ere, ikastetxeetan kirola unibertsalizatu bada ere, ez da gauza bera gertatzen **eskolaz kanpoko kirol ekintzetan**, horietan hautematen baitira lehendabiziko desorekak, sexuaren araberako presentziari dagokionez. Hala bada, 2012ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan, parte-hartzaileen % 39,5 neskak ziren, eta % 60,5, aldiz, mutilak. Kirol egokituari dagokionez, aldeak are handiagoak dira, parte-hartzaileen % 17,5 baizik ez baitira neskak. Modalitate batzuetan sexu bateko parte-hartzaileak baino ez zeuden; esaterako, neskek ez zuten parte hartu errendimenduko futboleant eta pilotan, areto-futboleant eta mahai-teniseant, ezta mutilek ere aerobiceant eta boleiboleant.

Era berean, mailaz igo ahala neska parte-hartzaile gutxiago dagoela ikus daiteke. Hain zuzen ere, nesken parte-hartzea nabarmen jaisten da kimu-mailatik haur-mailara igarotzeant. Gainera, eskolako kiroletik kirol federaturako urratseant nesken kirol-uzte maila oso handia da, eta horren

arrazoia, batez ere, neskontzako eredu eta pizgarri gabetasuna da, hala nola, neskek euren beharren eta egoeraren arabera zehazki motibatuzko orientabide falta.

Horrenbestez, eta azken urteotan emakume **kirolari federatuen** kopuruak gora egin duen arren, 2010ean, emakumeen kirol-lizentziak lizentzia guztien % 20,56 baino ez ziren. Lizentzia duten gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa zen 48 kirol-federazioetatik 44tan. Hain zuzen ere, gimnastika (% 97 neskek), boleibol (% 61), hipika (% 61) eta neguko kirolen (% 53) federazioak dira lizentzia duten emakumeak gehiago direnak. Alabaina, ehiza, arrantza, motoziklismo, automobilismo, txirrindularitza, aireko kirol eta squash federazioetan lizentzia duten emakumeen ehunekoa lizentzia guztien % 5 baino txikiagoa da. Horrek guztiak agerian uzten du emakumeen presentzia nabarmen minoritarioa dela eta oraindik ere segregazio horizontala gertatzen dela, segun eta kirol jakin batean nagusiki gizonak edo emakumeak jardun izan diren.

Bestalde, **herri-kirolei** dagokienez, emakumeen presentzia mende askoan anekdotikoa izan da. Hala ere, joera hori alderantzikatu egin da azken hamarkadetan, batez ere, 80ko hamarkadaz geroztik, orduan sortu baitziren sokatirako talde asko, txapelketa garrantzitsuak antolatzearekin batera. Era berean, nabarmendu behar da azken urteotan gero eta emakume gehiagok parte hartu duela txinga, trontza, sega edo harri-jasotze probetan. Edonola ere, ez dago datu-bilketa sistematizaturik kirol-tradizio ondo errotu eta batez ere maskulino horretan emakumeen presentzia zehaztu dezakeenik. Dena dela, jakina da gero eta handiagoa dela emakumeen presentzia, oraindik ere minoritarioa izan arren (datuen arabera, 2010ean, 152 emakumek zuen lizentzia, herri-kirolari guztien % 12,21, alegia).

Antigoaleko **Joko Olinpikoetatik** aurrera (gizonek baino ezin zuten parte hartu), eta 1900ean lehendabizikoz emakumeek parte hartu zuten Joko Olinpiko modernoetatik hona, emakumeen parte-hartze olinpikoa sendotuz joan da edizioz edizio. Hala, 2012ko Londresko Joko Olinpikoetan 4.850 emakumek parte hartu du (historia osoko parte-hartzerik handiena; alegia, parte-hartzaileen % 46¹), hau da, Beijingeko Joko Olinpikoetan baino % 4 gehiagok. Bestalde, 2012an, Londresen parte hartu duen euskal ordezkariak olinpikoa 10 emakumek eta 15 gizonek osatu dute. Talde hori Beijingen 2008an parte hartu zuen ordezkariak baino desorekatuagoa da, bertan 12 emakumek eta 12 gizonek parte hartu zuelako².

¹ Datu hori eman zuen 2012ko uztailearen 26ko albistegiak: www.rtve.es

² Datu horiek ageri dira BAT-en web gunean: www.basqueteam.com

Goi mailako kirolari dagokionez, Euskadi Kirola Fundazioak 2012an kirolarietara emandako 47 beketatik, ondorio instituzionalerako goi mailakotzat jotzen direnetatik, alegia, 30 gizonak jaso dituzte, (horietako 4 kirol egokituetarako) eta 17, aldiz, emakumeek (alerik ez kirol egokituetarako). Gainera, presentzia desberdintasunez gain, batzuen eta besteen kirol ibilbidearen garapenean desberdintasunak ageri dira.

EAEko goi mailako kirolarien egoerari buruzko ikerlanaren arabera, emakume kirolariak gizon kirolariak baino kezkatuago ageri dira beren kiroleko profesionalizazio maila txikiaren ondoriozko egonkortasun ekonomiko ezagatik eta babesle faltagatik, hala nola lesio larriren bat edo ama izateak eragin diezaiekeen babesgabetasunagatik. Hautzaro edo gaztaroz geroztik argi dute beren kirolari bizitza eta ikasketak bateratu behar dituztela, etorkizun profesionala bideratuko badute. Hala, ia hirutik batek beka jasotzea eta lana egitea bateratzen dituzte (gizonezkoen % 16,6ak baino ez du gauza bera egiten). Etorkizunari dagokionez, emakumeek nahiz gizonak adierazten dute kirolarekin lotutako lanetan aritu nahi dutela, batez ere kudeaketan (emakumeen % 61,5 eta gizonen % 77,7), baina baita entrenatzaile lanetan ere (emakumeen % 53,8 eta gizonen % 72,2).

Bestalde, eta lehiako kirol jardueran alde batera utzita, aisialdian **ariketa fisikoa** egiteari dagokionez, gizonak emakumeak baino aktiboagoak dira. Hau da, kirol gehiago egiteaz gain (kirol ohituren inkestako datuen arabera, gizonen % 65 eta emakumeen % 45 jardun da kirolean azken hilabeteetan), maizago egiten dute. Kirol gehien egiten den adin tartea 15 urtetik 25 urte artekoa da, bai emakumeen kasuan (% 56), bai gizonen kasuan (% 74). Hortik aurrera, kirol-uztea gertatzen da bi sexuetan, hori bai, gizonetara dagokienez, beharrezkoan era konstantean gertatzen da 65 urte bete arte. Emakumeei dagokienez, 50 urtetik aurrera nabarmen egiten du behera kirol-jardunak.

Aisialdiko kirol jardueran ere segregazio horizontala gertatzen da; izan ere, gizonak gehien egiten duten kirola futbola da eta emakumeek gehien egiten dutena mantentze-gimnastika da.

Edonola ere, **kirol profesionalaren** arloa da genero desberdintasun maila handienak daudena, gehien bat gizonetara osatuta baitago (futbol jokalariek, eskubaloijokalariek eta pilotariek, besteak beste, diru-sarreraren ekonomiko eta gizarte eragin neurrian kanpokoan dutenak askotan). Hala ere, ezin izan da horri buruzko informaziorik bildu.

Halaber, ezin izan da **kirol teknikari, zuzendari eta epaileei** buruzko informazio estatistikorik aurkitu, baina kontu nabarmena da emakume epaile, entrenatzaile eta kudeatzaile gutxi dagoela kirolean.

Arlo horietako datu-gabezia hori emakume eta gizonen arteko egoera desberdina aztertu eta ikertzeko ahalegin handiagoa egin behar den seinale da, eta genero-ikuspegia txertatuta dagoen esku-hartze publikoa bideratzeko balio dezake.

Azkenik, **kirol eta aisialdi zerbitzuen enpleguari** buruzko datuak aipatu behar dira. Hala, sektore horretan gizon enplegatu gehiago dagoela ikus daiteke (2009an, 3.801 gizon landun zegoen eta 3.271 emakume). Dena dela, bi kopuruon arteko aldeak ez dira espero bezain handiak.

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Atal honetan aztertuko dira, batetik, kirol baliabideak lortzeko aukera-berdintasun eza, eta bestetik, oinarrizko baliabide zenbait (denbora, zaintza, trebakuntza eta komunikabideak) lortzeko aukera-berdintasun ezak emakumeen eta gizonen kirol jardueran zer-nolako ondorioak dituen. Halaber, osasunaren eta kirolaren arteko loturari genero-ikuspegitik erreparatuko zaio.

Kirol-baliabideak: Gizonen kirol-jarduerak, batez ere modalitate ezagunenei dagokionez, onarpen sozial zabal eta luzea duenez, mota guztietako baliabideak jasotzen ditu lehenespenez: ekonomikoak, materialak eta giza baliabideak. Emakumeak, aldiz, bigarren mailan daude baliabide banaketari dagokionez. Gainera, beraiek dira kaltetuenak behar ekonomikoek jarduera egitea zailtzen dutenean.

Kirol-baliabideen banaketa desberdinaren adierazleetako batzuk honako hauek dira:

- Kirol txapelketen antolakuntza eta entrenamenduak: Antolakuntzako erabakien ondorioz, oro har, emakumeei esleitzen zaizkie instalazio txarrenak (gaizkien zaindu eta argizatutakoak, ezaugarri txarrenekoak eta urrunen daudenak), ordutegi deserosoenak eta prestakuntza gutxieneko entrenatzaile eta epaileak.
- Kirol-ekitaldiak diruz laguntzea: Eusko Jaurlaritzak 2001ean diruz lagundutako kirol-ekitaldietako 60 mistoak ziren, 36tan gizonen baino ez zuten parte hartu eta 8 besterik ez ziren izan parte-hartzaileak emakumeak zirenak³.
- Euskal selekzio absolutuak: 2001ean, euskal selekzio absolutu guztietatik bat baino ez zen bakarrik emakumez osatutakoa. Aldiz, 11 ziren gizonak baino ez zeudenak⁴.

Aztertzea interesgarri gerta litekeen beste adierazle batzuk honako hauek dira:

- Irabazi asmorik gabeko kirol-erakundeei emandako diru-laguntza publikoak, federazioen kirol-programak, euskal selekzioen txapelketak, kirol-dibulgazioko jarduerak, eta abar.
- Kirol-instalazioak eraikitze edo hobetzeko inbertsio publikoak.

³ Datu horiek ageri dira Kirolaren Euskal Planean erakundearentzat eginiko 2003-2007 aldiko egoeraren diagnostikoan.

⁴ Datu horiek ageri dira Kirolaren Euskal Planean erakundearentzat eginiko 2003-2007 aldiko egoeraren diagnostikoan.

- Goi mailako kirolarientzako Faturako teknika hobekuntzarako zentroko zerbitzuen eta federazioen kirol-proiektuen irisgarritasuna
- Kategoriaren arabera emandako Euskadi sariak.

Denbora: Denbora baliabide mugatua denez, ez da harrizkoa denborarik ez edukitzea izatea emakumeek zein gizonek ariketarik ez egiteko ematen duten arrazoï nagusia. Dena dela, denbora ez edukitze hori nabarmenagoa da emakumeen kasuan, batez ere, etxeko eta zaintzako lanen ardura beregain hartzen dutelako gizonen baino gehiago. Esaterako, emakumeek baino ordu bate gehiago hartzen dute egunero gizonen aisialdirako.

Gainera, kirol-ohituren inkestaren arabera, kirola egiten dutenen artean, gizonak dira jarduera horri denbora gehiago eskaintzen diotenak. Horrenbestez, gizonen astean hirutan edo gehiagotan egiten dute kirola, eta emakumeek, aldiz, astean behin edo bitan. Halaber, kirol-saio luzeagoak egiten dituzte gizonen. Emakumeak halako bi dira bi ordu baino gehiagoz kirola egiten duten gizonak.

Zaintza: Biziraupenerako, ezinbestekoa da zaintza. Hori horrela, gizonen, erakunde publikoen eta elkarte pribatuen koerantzukizun soziala handitu artean, emakumeak arduratu ohi dira zaintza-lanez, lanegun bikoitz edota hirukoitzei aurre eginez. Horrek, jakina, beren osasuna eta bizi-kalitatea kaltetzeaz gain, kirola egin ahal izatea oztopatzen du.

Horren harira, adierazgarria da goi mailako kirolariei egindako ikerlanean gizonen batek ere ez diela traba irizten aitaltasunari eta zaintza-lanak uztartzeari goi mailako kirolari izaten jarraitzeko. Aldiz, goi mailako emakume kirolarien % 100ak adierazi zuen amatasunak eragin handia zuela bere ibilbidean. Izan ere, adierazitakoaren arabera, zaila da geratzeko unea aurkitzea goi mailan arituz gero, haurdunaldiagatik eta kirol-maila berreskuratzeagatik baino gehiago, haurraren zaintza eta bidaiak nahiz txapelketak bateragarri egiteko aukera faltagatik. Gainera, aldi horietan laguntza eta babes ekonomikorik ez izateak eragiten duen egonkortasun ekonomiko eza jasan behar dute.

Prestakuntza: Ondorengo taulan ikus daitekeenez, emakumeen presentzia gorputz eta kirol jarduerari lotutako prestakuntza akademikoan, % 30etik beherakoa da aukera guztietan: erregimen bereziko ikasketak, lanbide heziketa eta unibertsitatea.

Matrikulatutako ikasleak. 2008/2009	E. %	G %
Erregimen bereziko ikasketak: Kirola	%0,9	%99,1
Erdi mailako Lanbide Heziketa: Gorputz eta kirol ekintzak	%21,7	%78,3
Goi mailako Lanbide Heziketa: Gorputz eta kirol ekintzak	%23,0	%77,0
Unibertsitateko diplomatura: Gorputz hezkuntzako irakasletza	%28,0	%72,0
Unibertsitateko lizentziatura: Gorputz eta kirol ekintzen zientziak	%26,8	%73,2

Txostengileak eginga Cifras txosteneko datuak erabiliz.

Prestakuntza arauturako teknikarientzako Kirol-eskolaren hezkuntza-
eskaintzari dagokionez, entrenatzaile eta monitore teknikarien prestakuntza
arautuan eta epaile, zuzendari eta teknikari izatera bideratutako
etengabeko prestakuntzan matrikulatutako emakumeen ehunekoa
gizonena baino nabarmen txikiagoa da datuen arabera⁵.

Kirolari lotutako ikasketak hautatzen dituztenen artean mutilak gehiengoa
direnez, eta horien parte-hartzea handiagoa denez hezkuntza ekintza
espezializatuenetan, erraz aurreikus daiteke etorkizunean ere gizonen
presentzia handiagoa izango dela kirolari lotutako enpleguetan eta
etorkizun hobea izango dutela jarduera horietan emakumeek baino. Hala,
kirol ingurunea maskulinoa izango da aurrerantzean ere; alegia, emakume
gutxikoa.

Komunikabideak: Komunikabideek ez diote tratamendu bera ematen
emakumeen kirolari, eta horrek bi ondorio ditu:

Batetik, ikuspegi androzentrikoak eragindako ikusezintasuna (gizonen
nonahikotasuna); emakumeei ez zaie arretarik eskaintzen edo arreta gutxi
eskaintzen zaie. Esaterako, EITBren albistegietan generoaren araberrako
agerpen-maiztasuna zer-nolakoa den aztertuta, agerian geratu da
emakumeak kirol-albisteen % 7,4aren protagonista direla eta emakumeei
buruzko kirol albisteei eskainitako denbora % 3,7 dela (gizonezkoei
eskainitakoa, aldiz, % 96,3).

Emakumeen kirolaren ikusezintasunak, funtsean, emakume kirolariei eta
beren ahalegin nahiz lorpenei gizarte aintzatespenik ez ematea dakar,
baina, gainera, horrek dakarren erreferentzia positiboan gabetasunak
gainerako emakumeek gizarte indargaririk ez edukitzea dakar. Hain zuzen
ere, gizarte indargarri hori nesken kirol-uzte goiztiarra prebenitu eta
geldotzeko baliagarria izan liteke, hala nola genero-rolak gaindituko
lituzketen kirol ekintzak anizteko.

Bestetik, estereotipoen transmisioak eragindako sexismoa. Estereotipo
horien araberrakoak dira emakumeen agerpenak; alegia, tratamendu
desberdintasuna betikitzen duten genero-errepresentazioen araberrakoak.

⁵ Kiroleskolaren Memoria 2011 bildutako datuak.

Emakumeak komunikabideetan agertzen direnean, oraindik ere zenbait balio eta ideia nabarmentzen dira, emakumeen kirola gutxien dutenak, emakume kirolarien bazterketa azpimarratuz. Era berean, emakumeen agerpenetan arinkeria eta sexualizazioa nagusitzen dira.

Osasuna: Zalantzarik gabe, ariketa fisikoa egitea bizitza-ohitura osasuntsua da pertsona guztientzat. Egiaztatuta dago kirola egiteak onurak dakarziola gorputzari, bai fisikoak, bai psikiko zein sozialak. Izan ere, kirola egiten dutenek beren osasun egoerari buruz iritzi hobea dute, ongizate handiagoa izatearen sentipena edukitzeaz gain. Kirolak eragin positiboa duenez bizikalitatean, beharrezkoa da pertsona guztiek kirola egin dezatela sustatzea, eta, batez ere, emakumeak horretara bultzatzea, kirol gutxien egiten dutenak baitira.

Hala ere, aintzat hartu behar da kirola egiteak ez diela berdin eragiten emakumeei eta gizonei, ez aisialdiko kirolean, ez goi mailakoetan, batez ere, morfologia, bihotz-hodi, arnasketa eta mugimenari dagokienez. Dena dela, oraindik ere ikerlan gutxi dago gai horiei buruz, eta hori ere kirol arloan nagusi den androzentrismoaren seinale da.

Gainera, ez dago dopinak emakumeengan dituen berariazko eraginei buruzko informaziorik; izan ere, munduan eginiko dopinari buruzko ikerketa guztietan gizonen laginak baino ez dira erabili. Horren harira, ezin da aipatu gabe utzi kirol errendimenduari loturiko eskakizunek, muturreko eta kontrol gabeziako kasuetan, nahi ez izan arren, osasuna kaltetu dezaketan ohiturak sor ditzaketela; esaterako, dopin substantziak kontsumitzea, elikadura nahasmenduak, bigorexia, eta abar. Horiek guztiak genero-ikuspegitik aztertu beharko lirateke.

Azkenik, aipatu behar da, oro har, kirol ekintzarako berariazko osasun-azterketak egiteari buruzko kontzientziazio maila oso txikia dela. Izan ere, eta kirol ohiturei buruzko inkestaren arabera, kirol ekintzaren bat egiten duten lau pertsonetatik batek baino ez du osasun-azterketaren bat egin. Emakumeen ehunekoa (% 14) gizonena (% 30) baino txikiagoa da.

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Emakumeek ez dute gizonek bezainbeste parte hartu kirol ekintzetan eta egun ere joera horri eusten zaio. Ez da ausazko gertakari bat, ez eta isolatua ere; alegia, emakumeen presentzia txikiagoa da publikotzat hartu diren esparru guztietan, esaterako, lan munduan, politikagintzan eta kulturagintzan, besteak beste. Kirola ere esparru publiko horietako bat da.

Horren harira, erakunde mailan gertatzen dena aipatu behar da, kirol egitura guztietan oso txikia baita emakumeen ordezkariak. Emakumerik ez dagoenez erabaki-guneetan, eta kirolaren inguruko egiturak maskulinoak direnez oso, emakumeak nahi baino astiroago heltzen dira kirolera.

Zuzendari kargu publikoak: Kirol erakundeetako zuzendaritza organoetan emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da. Eusko Jaurlaritzako Kirol sailburua emakumea da, baina sailburuordea eta zuzendaria gizonak dira. Arabako Foru Aldundian gizon bat eta emakume bat daude, bi gizon Gipuzkoakoan eta gizon bat eta emakume 1 Bizkaikoan.

Kontsula eta aholku organoak: Hurrengo taulan ikusten den moduan, aztertutako 4 organoetatik bitan baino ez dira betetzen 4/2005 Legeak ezarritako ordezkariak orekatuaren parametroak (sexu biek %40ko ordezkariak, gutxienez). Horren arrazoia kirol federazioetan emakumerik ez egotea da, organo horiek, batez ere, federazioetako kidez osatzen baitira.

Organoak	E. %	G %	Lehendakaria
Kirolaren Euskal Kontseilua	%29,4	%70,6	E
Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea	%42,8	%57,2	E
Kirol Justiziako Euskal Batzordea	%42,8	%57,2	Birakaria
Eskola Kirolaren Euskal Batzordea	%20,0	%80,0	G

Txostengileak egina Kirol Zuzendaritzak emandako datuak erabiliz.

Kirol Federazioen Zuzendaritza Batzordeak: Kirol Zuzendaritzak emandako 2010eko datuek agerian uzten dute emakumeek zailtasun asko dituztela kirol federazioetako egitura maskulinoetan sartzeko. Esaterako, euskal 47 federazioetatik batean (alegia, % 2an) besterik ez dago presidente kargua emakumeen esku, hain juxtu, surf federazioan. Gainerakoan, zuzendaritza batzordeak osatzen dituzten kideetatik % 9,12 emakumeak dira.

Zuzendaritza batzordeetan emakumeen presentzia hain urria dela ikusita, Kirol Zuzendaritzak hautes-araudian honakoa sartzeari bultzatu du: hautagai-zerrendako kideen % 40 gutxienez emakumeak edo gizonak izan daitezela, edota gutxien ordezkatutako sexuko lizentzien ehunekoa baino handiagoa bederen. Gainera, ezarritakoaren arabera, berdinketarik balego, irabazlea emakume bat buru duen zerrenda izango da.

Era berean, eta zuzendaritza batzordeetakoak ez diren arren, kirol federazioetako kudeatzaile eta zuzendari tekniko postu ia guztiak (% 95,7) gizonen esku daude. Bakarrik halterofiliako eta tiro olinpikoko federazioak dira kudeatzaile eta zuzendari tekniko postuetan emakumeak dituztenak.

Gainera, 2003-2007 aldirako Kirolaren Euskal Planak hauteman zuenaren arabera, kirol federazioetan emakumeen esku dauden postuak administraziokoak edo idazkaritzakoak dira. Interesgarria litzateke maila profesional horiek gaur egun zertan diren ikertzea.

Kirol elkartegintza: Kirol elkarteko kide izatea maizago gertatzen da gizonen artean. Esaterako, elkartegintzari buruzko ikerlanaren arabera, gizonen % 35 eta emakumeen % 15 da edo izan da kirol elkarteren bateko kide. Halaber, interesgarria litzateke kirol klub eta elkarten erregistroko kirol klubaren bazkide sortzaileetatik ehuneko zenbat diren gizonak eta zenbat emakumeak ezagutzea, kirol motaren arabera kirol elkarte mota aintzat hartuta.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Arau sozialen eta estereotipoen eragina oso nabarmena da kirol arloan, kirol jardueren segregazio horizontala sortu eta birsortzen baitu. Kirol ekintzan eta erakundeetan nagusi den androzentrismoa eta emakume kirolariek gizarte errekonozimendurik ez jasotzea, horiek dira emakumeak lehia jarduerara hurbiltzeko eta horiekiko interesa izan dezaten dauden trabak. Gainera, emakumeen ibilbide profesionala eta pertsonala oztopatzen dituzte arlo horretan. Kirolaren alde ilunena emakume-irudiaren erabilera sexual eta sexistan datza, hala nola sexu-jazarpen eta abusu sexualean.

Jokabide maskulinoaren eta femeninoaren gaineko gizarte eraikuntzek gizonen eta emakumeen kirol aukera eta ekintza baldintzatzen dituzte.

Neska-mutilen jaiotzetiko genero-sozializazioak ondorio asko ditu, eta, besteak beste, eragin nabarmena du emakume eta gizonen kirol modalitate baten edo bestearen aldeko hautua egiteko garaian. Horrela, segregazio horizontala betikitzen da, pertsona guztiek edozein kirol modalitate aukeratu eta egin ahal izatea oztopatzeaz gain. Are gehiago, muturrera jota, txapelketetan parte hartzea debekatzen zaie sexu batekoei edo bestekoei, modalitatea gorabehera.

Esaterako, 2012ko Londresko Joko Olinpikoetara arte itxoin izan behar dute emakumeek boxeoa aritzeko. Halaber, tenisean, lehenengoz jokatu da binakako mistoaren modalitatea. Dena dela, oraindik ere badago diziplina baztertzailerik; esaterako, gimnastika artistikoa eta igeriketa sinkronizatua, emakumeen parte-hartzea baino ez dutenak onartzen.

Lehia olinpikoaz gain, aipatu behar da Gipuzkoako eskola-jokoetan, adibidez, mutikoen gimnastika erritmikoan parte hartu zutela. Hori bai, motelagoa da mutikoak femeninoak irizitako kiroletara heltzeko prozesua, alderantzizkoa baino, ziur aski, mutikoen kirol «femeninoetan» aritzeko traba sozial are handiagoak aurkitzen dituztelako.

Kirola egiten duten gizonen eta emakumeen errekonozimendu eta indargarri sozial oso desberdinak jasotzen dituzte.

Gizonen familiaren, erakundearen, gizartearen eta komunikabideen babes handia jasotzen duten bitartean, kirol-ekintzan eta lehiaketetan hasteko, aurrera egiteko eta arrakasta izateko lagungarri zaiena, emakumeek traba asko eta askotarikoak gainditu behar dituzte kirolera heltzeko, kirolari izateko eta merezi bezalako errekonozimendua jasotzeko.

Izan ere, emakumeek familiaren babes txikiagoa jasotzen dute; erakundeek gutxiago inbertitzen dute, baliabide gutxiago bideratzeaz gainera; babesle

pribatuak aurkitzeko zailtasun handiagoak dituzte; eta aukera gutxiago dute lehiatzeko sasoiaren ostean teknikari postuetara heltzeko. Horrek guztiak emakume kirolarien ibilbidea nabarmen oztopatzen du, eta, aldi berean, hurrengo belaunaldien etorkizun-aurreikuspenak belzten ditu.

Halaber, emakume kirolariak komunikabideetan ez agertzeak emakumeen parte-hartzea eta etorkizun-aurreikuspenak kaltetzen ditu. Eragin sozial handiko emakume kirolari profesional gutxi egoteak eragin negatiboa du gainerako emakumeengan, emakumeek, oro har, ez baitute bere burua irudikatuko etorkizuneko kirol idolo gisa. Era berean, erreferentziatzeko emakume entrenatzaile, epaile eta kudeatzaileak ez egoteak emakume kirolarien ibilbide profesionala mugatzen du.

Azkenik, kirol arloan mutikoen hainbat eredu sozial dituzten arren, modelo horiek ez dira edozein kirolariarentzat, gizarte rol maskulinoei loturikoak baizik. Ondorioz, rol horiek apurtu eta aurre-ezarritako ereduak ez jarraitzea oso zaila gertatzen zaie erabaki hori hartzen dutenei.

Emakumeek kirol bat edo bestea mendera dezaten, ezinbestekoa da gizonen eta gizonentzat egindako kirola egokitzea. Kirol-arloa tradizio maskulinokoa da, desberdintasun biologikoen arabera gutxiengo egokitzapenak egin izanari esker emakumeak heldu direna. Horrela bada, kirolaren historian noizbait, boleibola emakumeen ezaugarrietara doitu zedin, sarearen altuera egokitzea erabaki zen. Hala ere, beste zenbait egokitzapen egin beharko lirateke oraindik ere; esaterako, joko-zelaiaren eta baloiaren neurriak, emakumeek jokatu mendera dezaten zailtzen baitute.

Desberdinak dira gizonen eta emakumeen kirola egiteko arazoak. Hautatutako kirol ekintzari dagokionez, emakumeek ariketa egitea bera lehenesten dute; ondo sentitzea, taldean egitea eta sasoiaren egotea, lehia-ezaugarriak baino.

Hala bada, lehiak kanpoko kirola nahiago duela adierazten du emakume askok. Ondorioz, eta lehiak kanpoko kirol eskaintza eskasa denez oso, eskolatik kanpo, emakumeek ez dute ariketa fisikorik egin, eta, gainera, kirol-ekintza federatua uztera daramatza. Era berean, horrek guztiak emakumeek mantentze-gimnastika, aerobika edo igeri egitea nahiz paseatzea nahiago izatea azal lezake.

Bestalde, kirol, osasun eta bizi-kalitateari buruzko ikerlanean agerian geratu da gizonen kirol ekintzarako zailtasun handiagoa dutela. Ariketa fisikoa da aisialdiko jardueraren nagusia gizonen artean. Emakumeek, aldiz, izaera sozialeko jarduerak lehenesten dituzte, kultura-jarduerak datoz gero, eta ariketa fisikoa ondoren.

Bestalde, auto-zaintza fisikoaren eta edertasun kanonen betekizunen eragin handiagoa nabari da emakumeen kirol ekintzan. Esaterako, kirol-ohiturei buruzko inkestaren arabera, emakumeen kirola egiteko arrazoiak honakoak dira: lirain egotea (% 36) eta ondo pasatzea (% 26). Gizonen kasuan, aldiz, ondo pasatzea da arrazoi nagusia (% 50), eta gero dator lirain egotearena (% 17).

Lehiaketa-kirola kirol-ekitaldiak antolatzean eta horien gaineko komunikabideen jarraipenean oinarrituta egoteak emakumeek horiei arretarik ez eskaintzearen arrazoa izan daiteke. Gizonek kirol-ekitaldiak jarraitzeko interes handiagoa adierazten dute. Kirol-ohiturei buruzko inkestaren arabera, gizonen % 63ak komunikabideen bidezko kirolaren jarraipena egin ohi du. Emakumeen kasuan, % 22ak. Kirol-ekitaldietara joateari dagokionez, ordea, emakumeen % 5a eta gizonen % 23a maiz joan ohi da ordainpeko ekitaldietara. Doako ekitaldietan, aldiz, % 5a eta % 20a, hurrenez hurren. Borroka-arte, herri kirol, futbol eta automobilismo ekitaldietara, gehien bat, gizonak doaz, igeriketa, tenis, boleibol, dantza/ballet eta eskola-kirol ekitaldietara, aldiz, emakumeak.

Ziur aski, lehiaketa-kirola ekitaldien antolaketan eta horien gaineko komunikabideen segimenduan oinarrituta egoteak, eta parte-hartzaileak emakumeak baizik ez diren kirol-ekitaldi gutxiago antolatzeak eta horiek komunikabideetan ez agertzeak, eragiten du emakumeak kirol-ekitaldietan hain interesatuta ez egotea.

Emakumeen irudiaren erabilera sexuala eta sexista kirol arloan. Komunikabideek emakumeen kirolari buruzko informazioa ematean, errealitatearekin zerikusirik ez duen estereotipo sexualez beteriko emakumea irudikatzen dute; emakumea nabarmentzen dute, ez kirolaria, eta gero eta joera handiagoa dago emakume kirolariak ikono erotiko gisa agertzeko, kirol-idolo gisa azaldu beharrean. Komunikabideak eta publizitatea direla medio, kirol-babesleek emakume kirolari askoren erakargarritasun sexuala ustiatzeari ekiten diote, beren kirol-lorpenak alde batera utzita.

Halaber, kirol federazio askok, kirola erakargarriago bihurtzeko eta emakume kirolariak femeninoagoak izan daitezzen, arropa labur eta estuak erabiltzeko agintzen diete jokalariei. Joera hori matxista da, kirola egiteko deserosoa izateaz gain. Gainera, zenbait kirol-ekitalditan, automobilismoan, saskibaloian eta/edo txirrindularitzan, emakumea kirolariak animatzeko eta/edo zoriontzeko erabiltzen dira, emakumea publizitate-objektu sexuala bihurtuz.

Kirol-arloko sexu-jazarpen eta abusuak genero-harremantako desberdintasunaren eta botere-abusuaren ondorio dira. Nazioarteko Batzorde Olinpikoak, Batzorde Medikoak hala eskatuta, ikerlan bat osatu du, sexu-jazarpena eta abusuak kirol maila guztietan gertatzen direla esaten duena. Hala ere, itxura batean, maizago gertatzen da goi mailako kirolean. Kirolarien inguruko pertsonak, botere eta autoritate postuetan egon ohi direnak, izaten dira egileak gehienetan, baina, beste kirolari batzuk ere izan daitezke sexu-jazarle eta abusu egile.

Sexu-jazarpen eta abusu arriskua handiagoa da babes gutxiko egoeratan, egilearen motibazioa eta kirolariaren zaugarritasuna (batez ere, adinagatik eta heldutasun-mailagatik) handiak direnean. Bestalde, arrisku-egoera deritze aldagelei, kirol-instalazioei, bidaiei, entrenatzailearen autoari edo etxeari eta alkohola kontsumitu ohi den ekitaldi sozialei (talde-aurkezpenak edo denboraldi amaierako ospakizunak, besteak beste).

Kirol-arloko sexu-jazarpenak eta abusuak eragin larri eta negatiboak izan ditzake kirolarien osasun fisiko eta psikologikoan; emaitzak txarragoak dira eta bazterketa jasan ohi dute. Gaixotasun psikosomatikoak, antsietatea, depresioa, substantzien abusua eta, kasurik larrienenetan, auto-zauriak eta suizidioak, horiek dira osasunean eragin daitezkeen kalteak. Kirola uztea izan daiteke erasotzaileak eragindako beste ondorio negatibo bat.

2.5. BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDUAK	ARTIKULUA/ARAUAK
Neurri egokiak hartzea kirol modalitate guztietan emakumeek eta gizonek tratu eta aukera berdinak izango dutela bermatzeko.	4/2005 Legearen 25.3 art. 3/2007 L.Oaren 29.2 art. 14/1998 Legearen 2.3.ñ art. 2002/2280 Ebazpenaren 3. eta 27. eranskina.
Debekatuta dago emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duen edo oztopatzen duen kirol-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.	4/2005 Legearen 25.1 art.
Debekatuta dago sexu-bereizkeria ezaugarriak dituzten kirol-jardueretara euskal herri administrazioek ordezkariak bidaltzea.	4/2005 Legearen 25.2 art.
Emakume eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren irizpideak txertatzea kirola garatzeko egitasmo publiko guztien diseinuan eta egikaritzean.	125/2008 Dekretuaren X.G. 3/2007 L.Oaren 29.1 art. 203/2010 Dekretuaren 29.3 art.
Emakumeen kirol baliabideetarako (aisialdiko eta lehiaketako kirol-ekintzak, instalazioak, etab.) sarbidea bermatu eta areagotzea, talde eta behar askotarikoak aintzat hartuta.	Nizako Adierazpenaren IV. Eranskina EUEKren Europako Gutunaren 20. art. V. PIMH 2.3.4. helburu operatiboa
Emakumeen nahiz gizonen kirol-jardueren babesletza sustatzea, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan.	4/2005 Legearen 25.4 art.
Emakumeak gehiengoa diren kirol modalitateentzako laguntza publikoak handitzea.	4/2005 Legearen 25.4 art.
Sexuagatiko bereizkeria dakarten kirol-jarduerak diruz laguntzea debekatuta dago.	4/2005 Legearen 25.2. art. 2002/2280 Ebazpenaren 42. eranskina

Gorputz hezkuntzako irakasleen eta kirol entrenatzaileen trebakuntzan genero-ikuspegia txertatzea.	2002/2280 Ebazpenaren 19 eta 25. eranskinak
Kirol Federazioek emakume eta gizonen arteko berdintasunerako ekintza positiboko planak osatu, onartu eta gauzatu ditzaten, laguntza teknikoa eta bitartekoak eskaintzea.	16/2006 Dekretuaren 170. art.
Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua sustatzea, erantzukizun postuetan eta erabaki harguneetan.	4/2005 Legearen 24.1 art. 3/2007 L.Oaren 29.2 art. 203/2010 Dekretuaren 28.2 art. 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 60.4 art. 2002/2280 Ebazpenaren 42. eranskina NBOaren L.Aeko hitzaldia
Kirol-arloko sexu-jazarpena eta abusua prebenitzera bideratutako neurriak hartzea.	2002/2280 Ebazpenaren 40. eranskina

OHARRA: Kirol-arloko berdintasun-aginduez gain, sektore guztietan aplikatu beharreko berdintasun-arloko aginduak kontsultatu behar dira. Horiek guztiak generoaren arabera inpaktu-txostenak osatzeko material lagungarrien artean dagoen alderdi juridikoei buruzko agirian bildu dira.

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
<u>4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako</u>
<u>1414/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena</u>
<u>125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa</u>
<u>16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena</u>
<u>203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi Mailako Kirolari buruzkoa</u>
<u>Agindua, 2012ko otsailaren 19koa, Kulturako sailburuarena, euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen diutena</u>
<u>EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V.Plana (EGB V. Plana) IX Legealdirako jarraibideak.</u>
<u>Kultura Sailaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Egitasmo-dokumentua. IX. Legealdia</u>
ESTATUA
<u>3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko</u>
<u>Aukera-berdintasunaren Plan Estrategikoa (2008-2011)</u>
<u>Kirola eta Ariketa Fisikoa Sustatzeko Osoko Plana</u>
EUROPA
<u>Kirolari buruzko Nizako Adierazpena. Europar Kontseilua</u>
<u>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako estretagia 2010-2015.</u>
<u>2002/2280(INI) Ebazpena, emakumeak eta kirolari buruzkoa. Europako Parlamentua.</u>
<u>Tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko Europako Gutuna. Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua (EUEK).</u>
NAZIOARTEA
<u>Kirolaren eremuan sexu-jazarpenari buruzko akordio-adierazpena. Nazioarteko Batzorde Olimpikoa (NBO).</u>
<u>Los Angelesko Emakumea eta Kirolari buruzko V. Mundu-konferentzia. Nazioarteko Batzorde Olimpikoa (NBO).</u>

4. DATU-ITURRIAK

ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • Kirol-jardueraren maila, sexuaren eta adinaren arabera. • Kirol-maiztasuna, sexuaren arabera. • Kirol-jardueraren iraupena, sexuaren arabera. • Zale gehieneko kirolak, sexuaren arabera. • Kirol-jarduera egiteko arrazoiak, sexuaren arabera. • Kirola ez egiteko arrazoiak, sexuaren arabera. • Azken urtean egindako osasun-azterketak, sexuaren arabera. • Ordainpeko kirol ekitaldietara joatea, sexuaren arabera. • Doako kirol ekitaldietara joatea, sexuaren arabera. • Kirol ikusienak, sexuaren arabera. • Komunikabideen bidezko kirol ekitaldien jarraipena, sexuaren arabera. 	<p><u>Kirol Ohiturei buruzko Inkesta EAEan 2008</u></p> <p>Kultura Sailaren Kirol Zuzendaritza</p>	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Eskola Kirol-jokoetako parte-hartzea, sexuaren eta urtearen arabera. • Euskadiko Eskola Kirol-jokoetako parte-hartzea, sexuaren eta kirolaren arabera. 	<p><u>Euskadiko Eskola Kirolen Estatistikak 2012</u></p> <p>Kultura Sailaren Kirol Zuzendaritza</p>	Urterokoa
<ul style="list-style-type: none"> • Euskal kirol federazioetan lizentzia duten emakume eta gizon kopurua. • Euskal kirol federazioen zuzendaritza batzordeen kideak, sexuaren arabera. • Euskal kirol federazioen kudeatzaileak eta zuzendari teknikoak, sexuaren arabera. 	<p>Euskal kirol federazioei buruzko datuak, 2010 (eskatuta)</p> <p>Kultura Sailaren Kirol Zuzendaritza</p>	Aldizkotasunik gabe

<ul style="list-style-type: none"> • Hainbat zerbitzu-sektoretan enplegatutako langileak, sexuaren eta A86 jardunaren arabera (EJSN, 09). 	<p><u>Zenbait Zerbitzuren Inkesta 2009</u></p> <p>EUSTAT</p>	<p>Bost urtean behin</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Eskainitako batez besteko denbora soziala, eginkizunaren eta sexuaren arabera. • Erregimen bereziko ikaskuntza matrikulatutako ikasleak, modalitatearen eta sexuaren arabera. • Erdi mailako Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. • Goi mailako Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. • Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak, sexuaren arabera. • Ikasgelako emakume ehunekoaren bilakaera, ikasketen arabera. 	<p><u>Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifrak Txostena 2010</u></p> <p>Emakunde</p>	<p>Urterokoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Kirol elkarteetako parte-hartze mota, sexuaren arabera. 	<p><u>Elkartegintza EAEn 2004</u></p> <p>Lehendakaritzaren Gizarte Prospekzioko Kabinetea</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta gizonen agerpen kopurua, sailka • Emakumeen eta gizonen agerpenen iraupena, sailka 	<p><u>Emakumeek eta gizek EITBko albistegietan dituzten protagonismo eta errepresentazioari buruzko azterlana</u></p> <p>Aztiker</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

IKERLANAK ETA TXOSTENAK

- EAEko goi-mailako emakumezko kirolarien egoeraren azterketa genero ikuspuntutik. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 2010.
- Herri-kirolen irakaskuntzarako gida. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 2009.
- 12 eta 18 urte bitarteko neska gazteak kirol praktika uztera eramaten dituzten zergaitiak eta arazo horretan esku hartzeko proposamenak. Itxaso proiektua. Gipuzkoako Foru Aldundiko, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua. 2002.
- Análisis de la actividad institucional y su repercusión en la práctica deportiva de las mujeres. Ainhoa Azurmendi Echegaray. 2005.
- Libro Blanco sobre el Deporte. Europako Batzordea. 2007.
- Estudio sobre Deporte, Salud y Calidad de Vida. La Caixa Fundazioaren gizarte-ikerlan bilduma 26 zk. 2009.
- Juventud y deporte. Una propuesta de cambio en la organización tradicional de la actividad deportiva. Carmen Díaz Mintegui. 2006.
- Deporte y Mujeres en los medios de comunicación. Sugerencias y recomendaciones. Kirol-kontseilu Gorenak.
- La construcción de las noticias deportivas desde una mirada androcéntrica. De la invisibilidad a los estereotipos de la mujer deportista. José Luis Rojas Torrijos. 2010.

ESKULIBURUAK ETA GIDAK

- Euskal kirol federazioetan genero ikuspuntua integratzeko gida. Eusko Jarlaritzako Kultura Saila. 2010.
- Kirolean berdintasunerako komunikazio gida. Eusko Jarlaritzako Kultura Saila.
- Guía del lenguaje para el ámbito del Deporte. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. 2009.
- El acoso sexual en el deporte. Guía para personas adultas. Arto Tiihonen & Nelli Koivisto. 2005.

WEB BALIABIDEAK

- Kirol-Kontseilu Gorenak argitaratutako on-line agiriak.
- Espainiako Batzorde Olinpikoaren on-line agiriak.
- Emakumearen Institutuko argitalpenen katalogoa. (Gaia: "Deporte")

